

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MAÑUETAKO UDALA

Herritarrek Mañuetako HAPOan parte hartzeko planaren iragarkia

Duela gutxi onetsi da 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onesteko prozedurak arautzen dituen. 3. artikuluan, herritarrek parte hartzeko plana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikokoan argitaratzeko betebeharra ezartzen da, administrazio publiko sustatzailearen arabera.

Gaur egun idazten ari den Mañuetako HAPOan herritarrek parte hartzeko plan bat dago. Plan hori 2019ko abenduaren 23ko osoko bilkuran onetsi zen, eta herritarrek parte hartzeko zenbait ekintza daude aurreikusita. 46/2020 Dekretuan zehaztutakoa betetzeko, HAPOa izapidetzen amaitzeko falta denerako herritarrek parte hartzeko programa argitaratzen da.

Orain arte egindako parte-hartze prozesuari buruz kontuan hartu beharrekoak:

2020ko urriaren 29an, udalbatzak erabaki zuen HAPOaren aurrerapena jendaurrean jartzea 2 hilabetez, Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialera eta hedapen handieneko egunkarira bidaltzea, aldameneko udaletara bidaltzea (2/2006 Legearen 90.3 artikulua) eta, Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin batera, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailera bidaltzea, Irismeneko Dokumentua eman zezan.

Parte hartzeko plana aurrerapen fasean dago; Aurrerapen Memoriako G atalean (Herritarrek parte hartzeko prozesua) Aurrerapen Dokumentua jendaurrean jarri arte jarraitutako parte-hartze prozesua jasotzen da.

Jarraian, HAPOa behin betiko onetsi arte aurreikusitako lan programa azaltzen da; adierazitako datak eta saioak partaidetza prozesuak berak eskatzen duenaren arabera egokituko dira; nolahi ere, egiten den saio bakoitza iragarri egingo da, eguna, ordua, lekua eta edukia alde aurretik adierazita, iragarki taulen, udalaren webgunearen eta gizarte talde ezberdinentzako emailen bidez.

Herritarrek parte hartzeko programa

2020ko abendua	HAPOaren aurrerapena aurkeztuko zaie herritarrei, iradokizunak egin ahal izan ditzaten.
Hasierako onespenerako plana egiteko fasearen erdi aldera	Nahiz eta herritarren parte hartzeak interes berezia duen planaren estrategia ezartzen den aurrerapen fasean, esperientziak erakusten du planaren idazketan ere herritarren oharrak eta iradokizunak izatea komeni dela. Saioa egingo da bizilagunekin, HAPOaren oinarritzko proiektua azaltzeko. Proiektu horrek modu eskematiko eta argian jasoko ditu HAPOaren hirigintza araudian artikulua bidez garatu beharko diren zehaztapenak. Dokumentazio horrek, planaren planoen zirriborroekin batera, oharrak eta ekarpenak jasotzeko oinarri nahikoa emango du.
Ondoren	Aurreko bileren arabera azterketa sakonagoa eskatzen duten gai eta auzi espezifikoetarako buruzko bilerak edo lan saioak prestatuko dira.
Hasierako onespenera duen HAPOa jendaurrean jartzeko fasean	HAPOaren edukia aurkeztuko zaie herritarrei, alegazioak egin ahal izan ditzaten.

Mañueta, 2020ko azaroaren 6a

Alkatea

FRANCISCO JAVIER GARCÍA PÉREZ DE LOZA